

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado  
Núm. clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Seigarren urtea - Pamplona. Enero - 1971 - Urtarrilla (Ilbeltza) - Iruña - 59gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

## ERREGEAK

Giro txarra zuten aurten Sortaldeko hiru Erregeak. Elur eta karroin, ez dakit nola ibiliak izango diren bide hoi-etan. Haurraren ametsetan elurak ez du ajola haundirik: ba daki nundik edo handik etorriko direla. Beti etorzen dira.

Beste kezkarik ba da go-goan. Nola ezagutzen dituzte haurrak bizi diren etxeak? Anketakoa leihoan ikusi-ta? Nola ibiltzen dituzte gau batez haur guzrien etxeak? Eta harrigarriena: nork jakinarazten die on eta gaiztoen bizi-

Guk artoa sartzen genien oinetakoan. Arto eta agotz lastoa, irrutitik heldu ziren mando goseak jan zezaten. Onak izaten ez ba ginen, aza-orri eta ikatz beltza utziko zigutela esaten zigun aitak. Eta bai utzi ere, batzutan. Nola zakiten gure berri?

### GEZURRAREN MOTZKERIA

Mesede baino kalte gehiago egin dute Erregeak gure artean. Eta ez esan haurren pozak zerbait balio duela. Inguruak utzi eta bide zuzenera jotzen du haurrak. Uste du

bera bezain zinez ibiltzen direla danak. Sinesten dituenek, oso osoan eta bihotzez sinesten ditu. Erregetako amets politikak aitaren aitzurra edo amaren jostorratza bezain garbi ikusten ditu, egiaren mailan. Gezurretan ibilarazi dituztela ikasteen dira kontuak. Haunditxoak negarrez ikusi ditugu, eta askorentzat beren biziko egun ilun bat gertatzen da.

Haurrak ikusten duena: jende haundiak gezurtiak direla. Bere aita-amek ere gezurretan zebiltzela. Bigarren kezka: errege kontuan bezela, ez



ote die bestetan ere gezurra esaten? Jokabide hortatik sortzen dira aita-semeen arteko oztasun asko.

Hemen ere, gezurrak urrats motza.

### EGUBERRI

Eta ba da besterik auzi hontan. Gauzak gaizki egiten hasi eta ezin laizke diren baino gaizkiago utzi. Eguberri egun zoragarriak direla ta, hamar hamabost eguneko besta izaten dute haurrek beren etxetan. Ama mugaz handikoa eta aita hemengoa zuen haur batek galdetzen zion bere gurasoeri: «Zertako ez dira Espainiako Erregeak beren garaian heltzen? Bakan-tzak finitu ta eskolara joateko egunean ekartzen dituzte gauzak, hain zuzen. Ez al dakite gure berri?».

Beste hitz batzuekin esateko, jostatze denbora ba dutelarik ez dute jostagarririk; eta Erregeak etorri orduko ikastolara itzultzeko garaia. Adierazi gero haur hoieri ongi egiten dituztela beren gauzak jende haundiak.

### EGIA

Egiarekin bazter guzitara heltzen omen da, eta beren egun egokian etor laizke Erregeak. Gurasotan dago aldapa

gora. Askorentzat haurren zoriona jokutzen da, haurren amets goxoak...


Zertako ez esan, duela bi mila urte Sortaldetik etorritako aztiak gizonak zirela gu bezela, eta joan zirela mundu hontatik bestera? Haien mando-abere haundiak ere hil zirela nagusiak bezela.

Jesus Haurra da behin betiko danontzat etorria, eta hau bai dela gure egiatzeko pozbide. Lehen kristau denboretan Errege egunarekin ospatzen zen Jesusen jaio-tza; gaur Abenduaren 25-ean egiten da. Zertako ez egun horren inguruan haurren ametsgarri hoberenak aizatu?

Giro txarra zuten aurten, gure artean, Sortaldeko hiru Erregeak. Lau anakoa utzi eta egan etor dailela nahi ba du errege beltza, gure haurren errege hoberena; betor, bai, baina bere garaian.

Gu gera, ordea, betiko arbi berantak!!

J. M. Satrustegui



OSA'KO ELIZA (Aida argazkia)

Tokia ezin liteke politagoa izan. Eskizun mendi egalian dago, egi batean, eguteraan. Txintxurrimear arkaizarteak bertan dauzka, eskubian. Beko aldean Urrobi ta Irati ibaiak alkartzen ikusten dira. Izaga ta Monreal mendiak agirian daude. Aizea osasunentzat ezin ohea, iduzkia naikoa.

Orain dala berrogei ta hamar urte bost famili bizi ziran. Eliza erromanikoa da, arri landuz egiña. San Erromanen izena jarri zioten. Bataiopontea ere erromanikoa du.

Orain dala eun urte, Luis Luziano Bonapartek bere mapan dionez, erri ontan zarrak bakarrik egiten zuten euskeraz. Gauz askoren izenak, euskeraz jarriak daude. Etxe bateri oraindik «Garaiko» deitzen diote.

Banun erri au ikusteko gogoa. Nagoren nintzala, jakin nun bertan bizi zan Nabaskoitzeko artzai batek, Osan ardiak zitula. Goizeko lauterdietan altxa ta berarekin oñez Osaruntz joan nintzan. Aizea iparra zan, etzegon lañorik. Egun sentiakin Osan giñan. Lenengo egunaren argiak iritsi nintzan. Giroa oso atsegiña zan.

Erria utsik zegon, etxe guztik irikita; gurdi bat, ate aurrean, Azken joanak utzi zuten bezelaxe; Jaurregi zarra, eder ta sendoa, leioa ta ate gotikoakin, arri landuakin egiña, urare irikia ta eroritzen zijoala; artzai zakur bat il berria ate ondoan. Urbildu nintzan elizara. Atea zabalik arkitu nuen, zoia altxatua, illen ezurrak agirian, Erretaula osoaren egurrak berriz lurrean milla pusketan. Ikusten zanez, arte aldetik, al-dareburu au ezin ohea zan, amasei garren gizaldikoa, platereskoa. Bizpairu ol margoztuak edo pintatuak ba-

## OSA, ARTZIBAR'KO ERRIKKA


zitun, batezere bat oso ederra, Amabirgiña bere semea illa bere eskutan zeukana, jakin degunez ostu egin dute. Sakristin apaiz eliz jantzin artean xaguak kabia egiña zeukaten eta aietatik bat tente jarrita neri begira egondu zan. Guk orduan ikusi genduana negargarri ta mingarria. Iduri zun gudatean giñala edo basamortuan, bañan ez Naparro lurralde aurreratu ta aberatsan.

Zer esan aundia dago, erri ustu abetaz. Etxe oieta-ko nagusiak nola utzi zituzten asaba zarren illobiak eta ezurrak eta aiek egindako lanak? Erri onek ba-zeukan ura ta argia. Danak saldu ta alde egiñaz, naikoa al da? Ez al dituzte obligazio batzuek bete gabe utzi? Lagundu bear zutenak, alegindu al dira, bear ziranak egiten?

Bizi ziranak joan diranean, zerengatik Elizak edo Diputazioak ez ditu orrelako Eliz eta arti-lan ederrak bear diran bezela zaitzen? Ezin al dira inspektore batzuek lan ori egiteko jarri? Edo Naparroan erri txiki batzuek izandu ziran gauz guztiakin nai ta naiez, il egin bear al duten, oso osorik lurrean eroritzen dirala? Lenagoko zar aien lan ederrak aztu egin bear al ditugu ta begi aurretik galdu? Geroak ez dezala esan bururik gabe bizi giñala.

Orain erri au, Irundar batek erosi du ta Irati ibai ondoan, borda bat berri du, laneko tresnak eukitzeko.

### UGAIN-BORDA



OSA'KO JAUREGI ZARRA (Aida argazkia)

Se autoriza la copia para la investigación.  
© GOBIERNO DE NAVARRA

# EUSKALERRIKO LEIOA

## «Euskal Antropologiaren Lehenengo Astea»-ren liburua

Yoan berri den urtean, hemen esan genuen gezala, Bilbon, Bilboko «Academia de Ciencias Médicas» delakoak (hau sortu zanez 75 garren urtea betetzean), Deustoko eta Bilboko Unibersidadeen laguntzekin «Euskal Antropologiaren Lehenengo Astea» antolatatu zuten.

Oso interesgarria izan zan Aste hau, mintzaldi iakingarriak, elkar-hizketa mamitsuak eta Euskal Herriari zoazkioten gai gehienak entzun, ikutu eta aztertutik.

Orain «La Enciclopedia Vasca» delakoak mintzaldi eta lan guziki bildurik liburua bat argitaratzekotan dago.

## Garitaonandia apez jauna illa

Euskal idazlari famatu hau Bizkaiko Urdulizko herrian sortu zan 1936 urteko ekainaren ogeigarrenean. Derioko Apezgaitegian bere apez-ikaskintzak egin zituen.

Euskal izkribitzaile on-ona izan zan, «Zeruko Argia», «Olerti» eta «Karmel» aldizkarietan, batez ere, bere euskal-lanak agertzen ziran.

Seme zintzo bat galdu du gure Herriak. G.B.

## Ipar Euskal Herrian ere ikastolak

Gure Egoaldeko Euskal Herrian ikastolak ugari irikitzen ari diranez berri pozgarriak alaizten gaitu osotik, izan ere, euskeraren etorkizun eta indarra ikastoletan bait da.

Orai gure Iparreko Euskal Herrian ere beste ainbestekoak sortzen ari direlako iakiteak errotik alegratzen, poztutzen nau.

Baionan, Donibane Lohitzunen eta Arrangoitzen ikastoak iriki dira, zorionez.

## Antxon Valverde-ren disko berria

Disko hau zabaltzeko horrian esaten duen bezala: «**Errenteriako Juan Francisko Petrirena Rekondo, «Xenpelar» hil zeneko egun urtemuga ospatzeko duzu disko hau.**»

«Xenpelar» bertsolariaren oroimenezko disko honek bertsolari famatu honen lau bertso dauzka Antxon Valverdek eratu eta kantatuak. Diskoren izena: **Xenpelar'en lau bertso**. Bertso hauen izenak: **Santa Barbararen martiriya», «Iya guriak egin du», «Zezen festa Pasaian», eta Iparagirre abilla dela.**

Kantu guzikiak kitarra doinuarekin lagunduak dira.

## Aita Ariztia il zaigu



Pasatu den Abuztuaren amabigarrerean Donostiko San Inazio klinikan Aita Ariztia Jesusen Lagundikoa (jesuita) il zan petxu-estu batek jota, irurogei urte zituelarik.

Aita Ariztia baztandarra zan, Zigako herrian sortua 1910 urteko Abuztuaren ogei ta irugarrenean. Iruñera bere apaiz-ikasketak egitea etorri zan eta gero, jesuita sarturik Belgikan eta Erroman ikasgoak egin zituen.

Aita Ariztia izkuntzetako errezetasun aundia zaukan, eta latin, gre-

ko eta hebreo mintzaeraz gainera, Europako lau izkuntza menderatuak zituen. Hauen artean, euskera, jakina, zergatik errotik eukalduna zan eta ongi zakien sortzetik ikasitako gure euskera. Izkuntzalari ona izan zan, eta hortaz gainera musikalaria, musika-egilea eta abots oneko kantaria.

Euskeraz izkribitzen iaioa zan. «Margo Ederdun Enziklopedia» delakoari lau liburu euskeratu zizkion: «**Abereen mundua**», «**Mundu berriko abereak**», «**Aprikako abereak**», eta «**Europako Abeldia**». Lehenengoak, argitaratu dena, eta beste iruak oraindik agertzekotan direnak.

Goian Bego pakean Baztango seme zintzo eta euskaltzalea.

## Donostiko «Irakur Sail» Editorialaren berriak

Donostiko Editoria honek liburu hauek argitaratzekotan dago esan duenez: **Lurraren kondaira (historia)**, Xalbador Garmendiarena. «**Batasuna**», euskera literarioa batutzeko azken oinarriak. «**Arrotza**», Camusena. «**Olerki Bilduma**», Mikel Lasasarena, eta **Julio Verne-aren nobela bat** Setienek euskeratua.

Liburu bakoitzak suskritoentzat irurogeitamar pezetako balioa izango du. Dendetan, beriz, ehunamabost pezetakoa.

Harpidedun (Suskritore) izan nahi duenak idatzi zuzenbide honetara: «**Irakur Sail**», Editoriala, Ferrerías, 1-Donostia.

## Toribio Etxeberria zanari omenaldia Eibarren

Toribio Etxeberria jaun zana Eibarreko semea zan, eta nere utes, Eibarreko gizonik bizkorrenetarik bat. Europako lehenengo gerratean lanez gose izugarria ekarri zuen gure Euskal Herrira, batez ere, Eibarrera. Orduan Toribio Etxeberria jaunak, beste eibartar on batzuekin bat eginik, hango langileen arteko elkartasuna lortu zuen, eta ordudunik elkartasunaren nahia gorputza harturik, ALFA izeneko lantegi aundi eta ederra sortu zan. Toribio Etxeberria zana ALFA fabrikaren sortzeilatetik bat zan. Ondoren, urte multzo bat pasaturik, Espainiako anai arteko guda ketan, erbestera joan behar izan zuen, Ameriketara bizi izanik hil arteraino.

Gizon azkar, erne, argi, kate gori aundikoa, langillea, bere denboretako ideietan aurreratua. Eibarreko herrian daude bere lan, asmo eta kezkek: ALFA FABRIKA, fama tua, iosteko tresnak egiten dituen eta han, barruan, bi milla ta gehiago gizon lan egiten dituztenak.

Arestin, eibartarreek, omenaldi sentikor bat egin diote eta Fabrikari barruan Toribio Etxeberria zanaren «oroigarri-irudia» jarri dute. Merezi zuen Etxeberria zanak...

## Arantzazuko Ama Birginaren Egutegia (Kalendarioa)

Arantzazuko Praileek, beste urtetan bezala, 1971 urteko **Ama Birginaren Egutegia** argitaratu dute.

Aurtengo Egutegiak badu beste zerbait guk pozik onhartzten duguna: Euskera literarioaren batasuna delako marka. Orain denok euskeraz idazteko batasuna iritxi behar duguta hango praileek ere ahaleginak egin dute euskera batuan idazten.

Euskalduna! Eska ezazu, Egutegi hau zuzenbide honetara: P.P. Franciscanos - Aranzazu (Oñate).

## Eguberriko Euskal Disko berria

Aurten Eguberriko euskal disko bat agertu berria da, «**Euskal Herriaren Eguberri**» izena duena.

Amar kantu dauzka disko honek eta denak Eguberriari doazkiotenak.

Kantuen izenak: «**Olentzero Bidasotarra**», «**Atzar gaiten**», «**Airerik ederrenean**», «**Oi Beñen**», «**Aintza zeruan**», «**Ori Eguberri gaua**», «**Ator mutill**», «**Kristo gu-**

ziek dezagun», «**Mari Domingi**», eta «**Kristo Erregeri**».

Kantu bakoitzaren aurretik Euskal Herriko zapai herrialdeak agertzen dira, Euskal Akademiaren Buru ordezkioa den Haristchelhar jaun irakurlea izanik.

Kantariak «**Gaztelu Zahar**» taldekoak dira. Zuzendariak: **Legaralde** eta **Etxenagusia** jaunak. Asmatzailea **Minaberry**. Disko hau **Eguberriko kantu ederrenen bilduma** bat da, diskoaren azalean esaten duenez.

## Euskal Olerti (Poesia) Eguna Larrean

Bizkaiko Larreko herrian (Amorebieta herritik urbil), urteoro bezaia, ioan berri den azaroan, **Euskal Olerti (Poesia) Eguna** ospatu zan, frantziskotar dan Aita Onaindiak antolatua.

Amaiketan Meza Nagusia eman zan eta gero Aita Frantziskotarren konbentuko areto batean Poesia-Sarietan Banaketa egin zan. Honako moduan Sariak gertatu ziran:


**Lehenengoa (Lirika-Sailla):** Paulo Iztueta jaunak irabazi zuen. (Berastegikoa).

Gero bi alpamenak eman zituzten: **Sabiñ Muniategi** eta **Balendin Apraiz** jaunak ziran hartu zutenak.

**Lehenengoa (Poema Sailla):** Martin Ugarte irabaztaile gertatu zan (Brinkolako) bere «**Itxaso Poema**» izeneko lanarengatik.

**Berto Saillen Paulino Solozabal** eta **Maria Jesus Baraiazarra** jaun andereak izan ziran garaile atera zirenak.

IKUSLE



·ELIZAREN ITZA·

## Eliza gaurko munduan

Gauzak bere esku ta mende batek idukitzeak ez du eragozten guztien eskukoak ere izatea, baño aldaketa ori egitean, guztien onerako, agintari nor danak eta bere saria ordaindurik egin dezake. Bakoitzaren jabetasunari trabak ipintzea eragoziko du Estaduak, denen onerako.

Baten mende egonagatik gauz batek, badu guztien onerako ikuskizuna (funziona social) gauzak guztientzat eginak bai dira, ori aztuzteak ekarri dezazke nasketa latzak, onerako izan beharrean, kaltegarri biurtu da-ta jabetasuna.

Zenbait alderdi atzeratueta lur zati zabaia esku gutxitan daude, erdizka, nola nai landuak, edo batere landu gabeak, oken ondoan berriz bertako gendeak, geienak, batere lurrik gabe, edo alor kokor batzukin, parragarri, bien bitartean lurrari azkar emanarazi behar zerbait aurreratzekeotan.

Frankotan esku-langille edo maistarrak, gizon bati eskeñi ez ditezken lan sari murriztenak jasotzen dituzte, bizi-leku arloeta eta tartekoen jauntxokeriak jasan behar aldiz. Segurantzirean arrastorik gabe bizi dira, askatasunik gabe beren gain edozer dala ta arizeko, bizi malla apur bat obetzeko, ta politika ta elkarte arazotan parte artzeko. Olakotan azpikoz gañera aldaketa zorrotz bat egin behar da, lan sariak jaso, lana giza-itxuran antolatu, segurantzia eman, lanetan aurreratzekeo sasoi emerazi; oraindik geiago, behar bezela, lantzen ez diren lurrak banatu, itxuran erabili dezaketenen artean, erraztasunak emanda jabetzeko, ta elkarren artean naturik batez ere, Kooperatiben bitartez, burua jasotzeko, lan giroan ta kultura bidean. Gizartearen on eta aurrerapenak, lurrik bortxara ta gogorragotz kentzea eskatzen duanean, jabeari ordaindu behar dakion sal-nerria itxurazkoa izan behar du, geiegikerik gabe. Konturatu behar dute Kristauak, zuzentasun eta elkarren laguntzari eragitekeotan, gaurko denboretako ekonomia-aldaketa, Kristoren espiritua txertatzen dutela gizadiaren barne-muñean.

# EL OLENTZERO PROTAGONISTA DE NAVIDAD



Es un personaje simpático, amable. Antiguamente en Lesaca solían quemarlo públicamente después de pasear su sonrisa por el pueblo. Quizá allí no se portaba demasiado bien durante el año.

El Olentzero, como queda dicho, vivía el año entero en el monte sin bajar al pueblo. Sólo hacía una excepción: el día de Nochebuena. Entonces bajaba para adorar al Niño que había nacido. Una vez cumplida la misión de su viaje, el Olentzero volvía a su cabaña del monte.

En recuerdo de esta leyenda popular euskaldún, suelen pasear al atardecer de la Nochebuena un muñeco o un joven caracterizado, que es llevado en andas, por las calles de los pueblos o ciudades. La informal procesión está formada por el Olentzero, a hombros, como figura principal, por un número indeterminado de «mutiles» ataviados a la usanza vasca y de txistularis. Los jóvenes van cantando villancicos o canciones oportunas para el momento, en euskera. A la vez, solicitan de viandantes y vecinos de las casas donativos para que los más necesitados puedan participar mejor de las fiestas navideñas.

El Olentzero fue en un principio, ¡qué duda cabe!, una figura mítica pagana. Pero el tiempo le ha cristianizado y le ha incorporado con toda su alma en una de las celebraciones cristianas más íntimas y populares.

Probablemente otro tanto haya sucedido con la legendaria figura del anciano Papá Noel, personaje central en las navidades nórdicas.

Cada grupo humano o étnico tiene sus propias leyendas, su propia visión de la realidad diaria y de los hechos históricos trascendentales. Lo que importa es que ese ángulo de mira y su interpretación no se pierdan. Y que todos podamos decir, mirando al personaje paseado en andas, «orra, orra, gure Olentzero».

G. ECHANDI

(«La Verdad» izeneko Aldizkaritik artua)



## Berriz Urte Berria, izan zaitez danontzat, argi on ta bidia

Lenengo itzez danori agur bat asi dan urte onetan izan dezagun zorian ta pakia bere egun guztietan.

Urte berri bat negu biotzian uste gabe jaio zaigu. Asieratik bi jai aundia alaigarriak baditu.

Urte Berria ta Iru Errege dis dis egiten dutenak. Berekiñ biok ekartze'ituzte beren milla zorionak.

Umetxuak zeñen poza aundia Errege egunez arte'uten! Nola bakoitzak beren eskutik dituzten jostalluk artzen!

Illbeltza, etzera berdiña beti txar eta onian izaten. Batzuetan elur, ekaitz ta izotzak, bestietan berriz epelen.

Zure izenak badu berekiñ eriotzaren iduria. Danian dago nagusiturik. Urruti oraindik bizia.

Gauz batek poza ematen digu: Egunaren luzatziak. Santa Luzia eguna ezkeror luzatzen dira illuntziak.

Illa onetxen erdi arteraño goiz aldiak illundutzen, ta beñ erditik pasa ezkeror asten da goiza luzatzen.

Onela argitze ta illuntze biak asten dira nagusitzen. Ta gure orrekiñ ez gaude aserre, pozkidaz gera betetzen.

Arrantzalia, txokon or zaude babesturik sukaldian. Badezu gaur zuk zure itxian antxe telebisian,

Zure sendia bildurik bertan bere gozotasunian, ikusten denak argazki ederrak beren begien aurrian.

Ez da oraindik Uda Berria;

egon lasai itxodoten. Badator bultzan bere bidetik. Sartuko da uste gaben.

Itsas ontzia liraiñ liraiñak portun geldirikan daude. Irauz bidetan jarrirazteko irrikiturik zaudete.

Aurten antxuak ¿noiz ta nundikan izango du agerketa? Kezkutzen zerate, arrantzaliak; ez da, ez, au jostaketa.

Kristau bezela «AITA GURIAN», biotzez eska zazute: «EMAN IGUZU GAURKO OGIA», Baztertuko etzaituzte.

Itz bi zueri, nekazariak; negu beltza gogorrian etxe aldetik sukalde giruan luzaro zaudetenian.

Sendi osuak eltzakaria gozaturikan maian jaterakuan, esan zazute otoitz auxe elkartian:

«Bedeinka zazu gaur, gure Jauna, otordutzat guk aurrian maniatuta daukagun jana» Jan gero armoni onian.

Igaroko da zuentzat negua ta lurra asiko da bixten. Berriz zelai, soro, mendiak, zoragarriaz betetzen.

Uda Berria ta Uda danian egiz zerate izerditzen. Uda Azkenia'n emaitzak bildu. ¡Jauna, zeñ ona zeraden!

Gure langille diran danontzat eskatzen diot Jaungoikuari eman deiola bere eskutik bialtuzten onak ugari.

Danon artian osatu zagan pakezko egoera bat, gero azkenian izan dezagun zorion aundi bat saritzat.

Joaquín Aldave



## ARDO TA OGI MARTXELIN

Jose Maria Sanchez Silva jaunak «Marcelino, pan y vino» izeneko liburu famatua baditu urteak idatzi zuela.

Liburu hau Mundu guzira barre-atu zan berrogei ta gehiago mintzaeraz izkribiturik.

Orain gure euskal izkuntzari txanda tokatu zaio, gure adiskide eta lankide argi den Jose Maria Satrustegi apez jaunari eta Iruñeko «Gomez» Argitaldaria (Editorialari) eskerrak.

Izan ere, Jose Maria Satrustegi apez jaunak euskeraturik fama aundiko liburu hau argitaratu berri du «Gomez» Argitaldaria.


Uste dugu gure euskaldun aurretzako, batez ere, gure Ikastolako neskato eta mutikoentzako, gogoko eta egokia izango dela.

Liburua ongi prestatua atera da, txukuna, irakurtzeko letra egokietan.

Satrustegi jaunak oso ongi euskeratu du, euskera batuan, errazki ulertzeko (konprenditzeko) moduan.

Liburuaren marrazkiak Lorenzo Goñi jaunak egindakoak dira, eta kolore-azalaren egileak Lozano de Sotes-Francis jaun-andereak.

Erosi nahi duenak eska beza: Gomez Editorial - Plaza del Castillo, 28 - Pamplona, edo, Jose Maria Satrustegi - Urdiain (Navarra).



## Maria Anjelak bere ahideri

Airea: Kattalin ttuku ttuku, Kattalin arina.

1)

Aitatxi, Amatxi ta, jendaki guziak Ez ziuztet oraino zuek ahantziak Urrun danikan hartu ene goraintziak Konserba zaitzate Jaun-goiko maitiak.

2)

Jaunari diot orai egiten agintza Zeruraino altxatuz umilki bihotza Kasu egin dezazuen beti zier ontsa Haren borondatian dauket esperantza.

3)

Luzaide-ko bisita ez zeraut ahantzi Bazter guziak perde, oihan eta sasi Zonbat jendakia han nik dutan ikusi Orroituko naiz hetaz ni naizeno bizi.

4)

Ene otto ta ttantta naute ni ekarri

Horrat ezagutzera jendaki guziera Hauk izan balezate luzaz osagarri Berriz egin ginio bisita zueri.

5)

Eguberri orantxe heldu zauku laster Agur bat emateko bihotzez guzier Gure jendaki eta, berdin adixkider Ikusi ez badaizke, adrezatuz berer.

6)

Eguberri denbora Jesus-en sortzia Giristino zuhurrek hartan du fedia Otoiztu dezagun ba Kristo erregia Guzier eman dezan bakezko bizia.

Maria Anjela-in partez, gure ahideri, Eguberriko oroitzapena, 1970-ian. Egilea, Juan Cruz Arrosagaray.

(Kalifornia)

Se autoriza la copia para la investigación.  
© GOBIERNO DE NAVARRA

## GERTATUA

Azaroan 22-ko Zeruko Argian irakurri det DON POLI IZENENKO Artikulo, edo idatzi bikaña eta berealaxe eziñ egon bat sumatu det nere gorputzean bere oroimenarekin eta yarri naiz lerro batzuk idatzi bear ditudala, naiz oitura gabea gai ontarako, bada lenengo aldia izango da zerbait argitaratzeko idaztea.

—oOo—

Ez nago oso seguru 1943 o 44 zen elurte aundi bat ilbeltean egun askoz egundu giñala erritik iñora mugitzerik gabe nola Leitz aldera ala Hernanira blokeatuak eta nere senide Donostikoak telefonotik esan zidaten nere arreba Margaritaren senar Sabino Parisan il zela eta alarguna bi alabatxo Amaya ta Nerekin zeru goyan eta lura bean gelditu zela, eta egiñal guziak egin bear zirala berak onara ekartzeko bada Frantziko gerra bukatu berria eta Parisen ez zegola otza eta gosea besterik.

Illezko galzerdi lodi eta bota ilzadunak yantzi makilla bat eskuan nuela oñez jo nuen iya Hernani raño. Urrengo goizean yoan nitzan Irungo Komandanci Fronterako, an bai nuen lagun aundi eta jator bat Ortega Jaunakin zegoena Don Pepe Farias eta agertu nion nere deseoa. Onak agertu ziran bere lagundu naya, baño gauz bat imposiblea zela zergatik ez zela Pasaporte bat ateratzen Pranzi eta España:ren Relazioak oso aserrekoak zaudela; bear bada Ortega aldetik Frontera pasatzeko baimena aterako zidakela, baño Prantzesak ez zidatela emango sarrerik.

Oroitu nitzan garai artan Donostian zegon Konsul Prancesa nere Iruñako lagun aundi baten adiskidea zela eta oneri deitu nion urrutizketik eta berak esan ziran itzegingo ziola eta ni azaltzeko bere izenean konsularen gana.

Esan eta eguiñ yoan nitzan Jaun onengana eta oso ongi errezibitu ere, baño Irungoak bezela imposible zela Parisera yotzera ortarako baimen berezi bat eman bear zuela Ministerio de Negocios extranjeros Pariskoak eta ez ziotela ematen Diploma-tikoari ere.

Nik eranzun nion nik ez nuela Pariserañoko baimen bearrik Bayonan banuela lagun aundi bat, ori zan Don Poli eta araño iritxi ezkeror ora aski nuela nere arreba eta bi alabatxoak ekartzeko bear ziran dilijenciak egiteko. Ori aditu ta Konsulak esan ziran bazuela baimena «salvo conducto» bat (Para zona Fronteriza) Bayonaraño emateko baño Irungoak bezela onek ere esan ziran Ortegak ez zirala ateratzerik emango eta alperrik nuela arren sarrera. Oneri ez nion esan nai izandun lagun bat nuela an eta adierazi nion ere lengusu bat zeukala neskame aspaldiko urtetan, onek nai zuena konseguitzen zuela. Urrengo egunean anayaren arropak, galtzerdi eta zapata berrik erosita an presentatu nintzan berriz Irungo Komandancian eta Farias Jauna arrituta gelditu zen Prancesaren sarrerako baimena ikusita. Besteari bezela oneri ere gezur txiki ori bera esan nion, Nere lengusua zeukala neskame.

Onak atera ziran beste baimena 48 ordurako Españitik ateratzeko eta antxe presentatu nitzan Don Poli Jauna gana (Rue de Bask 50) bere arrebakin bizi zen etxera. Berealaxe eraman nion SUBPREFECTURARA, bada adiskidea zuen bertako Gobernadore edo Sub Prefecto, adierazi zion nere objeto edo deseoa, eta eranzun zion berak ez zeukala eskubiderik iñori ere Pariseko baimenik emateko eta «por si akaso» obe nuela agertu Prefectoarengana Pau ra onek zerbait soluzioa asmatzen ote zuen.

Don Poli onek zeukan beste Apaiz lagun aundi bat Pau'en eta bazekin Prefectoarekin adiskidanza aundia zuela eta biali nion urrengo egunean beragana. Apaiz au Don Ikaki de Azpiazu Azpitikoa zen eta onek Prefectoarekin itz egiñ eta atera ziran Bajos Pirineosko Jefe de Policiak egindako Salvo conducto eta beste paper credencial bat esanaz. Ni Aleman guerran Pranzi alde asko sayatutako guizona nitzala eta neramala Parisa ango Poliziko Jefearentzat misio bat garrantzi aundikoa eta niri erraztazunak emateko bideko Policiak.

Don Polik lagun eguin zian estaciara, berak billetea atera, ta galde egin zuan, zeñ zan Parisko trenan, eta eranzun zioten irugarren bian zegona. Bialdu niñon toki ona artzera oaindik ordu erdi bat falta baizen trenan ateratzeko eta ni sartu ordurako trenan asi zen mugitzen eta non Paris aldera artuko zun Henday aldera, larritu ta asi nintzan erderaz («Donde va este tren» galdezca eta iñork ez ziran eranzuten; oroitu nitzan an euskaldunak izaten dirala, eta oyu egiñ nuen ¿Bai al dago emen euskaldunik? eta guizon bigote aundi eta pipa bat ortzean zuenak eranzun ziran. Euskalduna bay ¿Zer nai duzu? ¿Nora dio trenan au? Hendayara. Nik Parisa yon bear nun eta au dela esan dirate. Au da Paristik datorrena. Parisa diona Henday-tik ateratzen da eta ortxe Biarritz aldean zuzen eguiñen dugu. Esan bezela Biarritzen salto eguiñ neretik eta iyo nitzan zai zegon Pariskora. Konturik Don Poli bere descuidoaz an zebillen andeanan yoan ta etorri zer egin ez zekiela eta ikustean ni berriz bueltan netorrela. «Uste es la cuarta persona de la Santísima Trinidad» esan ziran. Eskerrak Don Poliri eta euskeraz yakite ari Paristik nere arreba eta bere umeak onara ekartzeko modua egin nuan.

Barkatu istori luzezkoa kontatu badizutet.

Ceferino Berroeta

(Oso pozik Goizuetako Zeferino Berroeta deitzen den lagun onak bialdutako gertaera iakingarri hau argitaratzen dugu. Esker aunitz Zeferino adiskidea, eta iarrai aurean euskeraz izkribitzen!!).

# IKASI, MIKASI...

## ¿ZORIONA, DIRUAN?

—Etorri naiz beorregana, nee emaztea ixilduazteko; nee aldetik, obe egingo nun nee buruu putzua bota banu...

—¡Ixo, gizona, ixo! Ortarako, noiznai garaia duzu.

—¿Beorrek ba aldaki eiztari baten naigabea, erbi eder bat zepoan arrapatuta, atzematekoan iges egiten dionin; eo sei libranko amorraia amutik zintzilika ikusita, zalaparteko batekin, batee bai gelditzen denin?

—Penagarri izan bear du.

—Oi da, ba, nei gertatu zaiena. Nik ba nun Ameriketara, osaba zar bat. Gutxiarri gaztegitzen zun, baño bagiñakin oso aberatsa zela. Gi-zaajoa il zen, oain lau illeete, zun otela, pillota jokua eta etxe mordoxka —Oitamar milloie peztakoen balioa—, neetzat utzita. Ara joan da dena saltzeko asmoan nengoela, gaztigatu didate, dena erre ta kix-kaldu dela...

—¿Segurorik etzun?

—Ezta batee. Zikoizkeriz, geo ta aberastasan geiago metatu naiez...

—Tamalgarri da, gertatu dena. Orain, esan bearko dezue, Job santuak, semealaba guztiak, etxek eta azinda galduta, esan zuena: «Jainkoak eman, Jainkoak eraman; izan bedi beti bedeinkatua Bere izen santua».

—Job, santua zen...

—Zu, kristaua zeran ezker, santu izan bear dezun bezala. Gañera, zure janzkeran nabari da, bear-bearrezkoa biñepin ba duzula.

—Amiste, bai, Jainkoai eskerrak.

—Geiago, ¿zertako duzu? ¿Uste duzu, ogeitamar milloikin, zori onezkoa izango zinela? Esan zazu egiz: ¿naiko ogi ez duzu zure etxian?

—Naikoa, bai; baño askotan, goor xamarra. «Joshe Migelen batean» bezaia, gure etxean ere ez da ikusten «txixarro ta berdeia» berterik. Bixigu, lebatz, txixardin eta umarri, gutxitan eta ez ain ugari...

—Ogeita amar milloie pesetarekin, zu erotuko ziñeke...

—¿Eroto? ¡A, ze bizimodu eamango nukin! Seiterditan beyek jetxi bearrin, amarretan jeki. Gosalduta, paseoat. Ongi bazkaldu, opekio araidu... Gaur Iruñea, biar Donostia, etzi Madrilla...

—¿Zuk uste duzu, aberatsak ez dutela nekerik, ez dutela naigaberik; gaitzik ez dutela arrapatzen, pobriak baño lasaiaigo lo egiten dutela?

—Ortan, bai, arrazoi pixke bat, ba du. Nekatzen ez denak, ez du izain aiseden gozoik ee. Bein baño geiagotan eondu naiz pentsatzen, gu gazta zarraakin tragoat einda, aberatsak amiste millikerikin bano pozao gelditzen gerala. Ala ere...

—Zurekin nago, egoki bizitzeko zerbait bear dela; lasaitasun pixke bat ere, bai. Baño, ez geiegi. Gutxiegi kaltegarri bada, geiegi, kaltegarriagoa da. Gezurra irudituko zaizu, baño, aberatsen bizitza, barnedik ikusita, ezta ain opagarri.

—Beorrek ola dionin...

—Gertaketa batekin, argiago ikusiko duzu.

—¿Gertatua, eo beorrek asmatua?

—Nik, ikasle nintzela, «Lectura Dominical» izena zuen izparringian irakurritakoa da, gertatuta bezalako. Naiz asmatutakoa bazen ere, ikas-kizun berdiña izango luke.

—Konta beza, ba, jaune.

—Ba omen zen zapatarri bat, bere familian ogia irabazteko, egun guztian mallukeka lan egin bear zuena. Ala ere, egun guztian, pozik eta kantari egoten zen. Bein, Loterian jokatuta, jaso zituan berrogei ta amar miliepeztako. Orduarte, etzen oartu bere etxeko atari eta leioak etzirela ongi itxitzen. Egun guztian egondu zen, atalagak eta maratilla berriak ongi jartzen. Bitartean, asi zen auzoko lagunuen prozesioa. Emakume batek nai zuan diru pixkebat, bere semiai zapetak erosteko. Beste gizon batek, nai omen zuan zamuka berria astoantzat, zarrari lastoa ikusten bai zaion nondinaitik... Uliak bezala, uxatu zituan denak, ongi pentsatu bear zuela eta biaramonean erantzungo ziela eta. Apal ondoan, oaterza joatekoan, itxillu aundiagoak... ¿Non gorde diru mordoxka? Azkenian, iruditu zitzaion oben oberena izango zela, galtzaren puntan diru guztiak sartu eta, galtzak jantzita, oeratu. Ala egin zuan. Amar minuto etziren igaro, ta, emazteak: —«Begira, Tomas, iya diruak or dituzun?» —«Baietz, emakume». Andik amar minutora: —«Ikusi bear det, iya emen dauzkadan diruak». —«Ikus zazu, Tomas». —«Ikusi bear det...». Gabe guztian ola egondu ziren, batere lo egin gabe. Ta, urrangoan, eta urrangoan... Laugarren egunean, jeki zelarik, juan omen zen erriko plazara, eta, denan aurrian, bota zituan diru guztiak, olloai arto pikorra botatzen zaien bezala, esanez: —«Zoazte, diru madarikatuak, nigandik urrutik. Nik naiago det len bezala bizi. Egunerokoakin, naiko det. Goizetik arratsaldeño, lan da lan egoten bai naiz ere, beñepin jan da lo lasaiaigo egingo det...».

—Kontu polithe da beorrek kontatu deena, baño...

—¿Ez duzu ikusten, zeinbat eta diru geiago, ainbeste buruaste geiago izaten dela?

—Ordun, zorionekoñak izango dee eskaleak eta jitoak...

—Ez ainbeste, gizona, ez ainbeste. Len ere esan dizut: ez gutxiegi eta ez geiegi. Aberastasuna, gorputzarentzat arropa bezala da: gutxi-gikin, oztuko giñake, ta, geiegikin, arnasa ezin artuz, itotuko giñake. ¿Eroango ziñuzke zuk berrogei txamarreta bizkarrean gañean?

—Bat paatuko nuke, ta bestiak gorde.

—Jai ta astegunetarako, eta aldatzeko ere, ¿bizpiruekin etziñun aski? Begira zer zion Salomonek, bere otoiñ batean: «Landertza eta aberastasuna, ez neri eman; bakarrik, bearreko ogia». (Itzurak, XXX, 8). Eta, Jesukristok: «Ez, bada, larritu, zer jango degu, zer edango, edo zer jantziko degu, esanez. Ortaz siñisgabeak kezkatzen dira. Egun ba-koitzak aski du bere nekea» (Mat. VI, 31-32).

—Nee athuna zenak ee, esaten zun maizeki: «Pobrea, zeruko lorea; aberatsa, infernuko laztza...». Baño nik ikusteot, beti arrastaka eta lurrea begire gabiltzela. Errezutaako eta, betaik ezduu. Aberatsak, egu-nero meza entzun dezakete, Lourdes'era, Erroma'ra, Jerusalem'era eta, joan ditezke; pobriak laundu, meza sariak atera, eriotz ondorako ere... Itz batean: pobreak baño erraxao salba daitezke.

—¡E, e, e...! Gai ortaz mintzo nai nizuke nik, geldi geldiro, baldin betarik baduzu.

—Nik ez dut prisarik.

—Orduan...

(Jarraituko da urrengo «IKASI-MIKASI»n).

A. ASTIZ ARREGI

## LESACA

### URTE - MUGA

Orduak ta egunak; illabeteak ta urteak. Baduazi. Ta aiekin bagoaz gu ere, udazkenean aize zakarrak ostoa elbarra daraman bezela. Ta gazteak galdu du betiko haurtasuna. Zaharrak gaztetasuna ez du berriro bereganatuko. Betiko beldurra: bagoaz. Ta egindakoa egiña gelditzen da. Egin ez genduna egin gabe, egin bearez.

—oOo—

Urte zahar bat il zaigula gau otz baten gaberdian. Norbaiten gogoetan urte ortan egin ditugunak. Herriari buruz: *pillota lekua tapatu; Bedioko zubitik Tomas-eneko-bordaraño bidea zabaldu; ain mingainetan dabillen karretera berria asi beintzat; Igantzirako bidea berri; «Plan de Urbanismo» delakoa agindarien eskuetik baieztu; iru konzejal berri berexi; igande illunabarretarako soñu talde berri bat deitu, ta, ta, ta...* Herriarrok herriari buruz herriaren alde egin ditugunak.

—oOo—


Urte zahar bat il da. Ta beriala berri bat asi degu: 1971 garren urtea. Asmo berriak.

Ta urte zahar ta berrien artean, muga. Urte-muga. Ta galdezka.

GALDEZKA txarrerako edo onerako izando ote dan ioan zaigun urte au; len baño gereagoa ote dan gurea dana; len baño batatugoak ote gaudezin gizonok.

GALDEZKA egia ote dan Lesakako herrien nortasuna auldu dala; arotzak gure gainetik dabilzala; gure erria len bezin polita berriro ikusiko ez degula; gure haurrak ainbeste kotxe ta kamion tartean ikaraturik jarraitu bearko dutela.

GALDEZKA gurasoeri denborak berriro dirala ohar-tzen asi ote zeraten; gaurko gazteen gogo ta iokaerak ongarrri edo txarrerako izango ote diran; gure haurrak maitasunez betetako giro goxo batean azitzen ari ote geran. Galdezka.



(Alvaro jaunaren argazkia)

GALDEZKA, baita, herria ta «Laminaciones» fabrika azkenez alkar konponduko ote duten on-onean, guztien mesederako; herriak fabrikarik gabe biziterik ote leuken; herriarekin asarraturik fabrika noraño alletuko ote zan. Galdezka «Laminaciones de Lesaca» edo «Lesaca de Laminaciones» izango ote dan.

GALDEZKA, azkenez, konzejal ta alkateak edo herriar guztiok Lesaca ta Lesakakoa zaitu bear ote degun.

GALDEZKA, urte-muga baida; urte berri bat asi baidegu. Biarkoa gaurkoa baño ohea izan dedin; ordutik ordura gereagoa!!

ANTXON

## AIZKOLARIAK

Doneztebarrek suerte txarra izan zuten Santa Luzia egunean denborakin, egun guztian euria yausti ahala, egia erran etzagon giro. Halare Euskal-Herriko aizkolarien Txapelketa ospatu zen aterkuntze bat probetxatuz, hortan suerte ona izan zuten. Bortz aizkolari ziren Doneztebeko leyaketa hortan beren indarrak neurtu beharrak: Arria azpeitiarra (orai Errezil'en bizi dena), Polipaso hernaniarra, Latasa sunbildarra, Berekoetxea gorritarra, eta Mindegia ezkuratarra. Aizkolarien eginkizuna: sei onbor 45 ontzako; sei kana-erdiko; eta lau 60 ontzako; aizkolari denak batean hasi ta lan guzia zeñek lasterrago egin. Bazen sari bat lendabiziko onborra lasterrera moztan zuenareztat eta Mindegia denetan gaztena izan zen garaile. Gero bigarren onborretik goiti Arria'k aintzinaldia harturik eta beti gisa hortan lasai lasai azkenengo egurra erdibitu arte; aisa irabazi zuen bigarrenari

2 minutu ta 39 segundoen aldea atera ziolarik.

Arria gizon bizkorra dugu eta Donezteben erakutsi du hoberena dela. Zorionak. Mindegia ezkuratarra ere lan ederra egin zuen eta ospe aundiko aizkolariak bere gibelean utzi ditu. Bertze gañerakoek eginahal guztiak egin zituzten bai dudik gabe baina utzi utzi gazteei bidea.

Txapelketaren auzia nola gertatu

Irabaztalea ta Txapeldun

Jose Ignazio Orbegozo, **ARRIA**:  
16 onborrak 35 m. ta 19 s/tan.  
1451 aizkora kolpe.

Bigarren

Migel Mindegia: 37 m. ta 58 s/tan.  
1519 aizkora kolpe.

Irugarren

Migel Berekoetxea: 42 m. ta 55 s/tan. 1619 aizkora kolpe.



Laugarren

Erraman Latasa: 48 m. ta 20 /tan.  
1723 aizkora kolpe.


Bortzgarren

Polipaso: 50 m. ta 1 s/tan. 1905  
aizkora kolpe.

Irabaztaleak Txapeldun Boneta eta Sari aundi bat ere hartu zituen eta bertze gañerakoek ere berena eskuratu zuten.

Zorionak aizkolari guzietari eta bai Doneztebeko Alkate jaunari ta bere laguntzale guzietari ere. Mundu bat yende bildu zen Donezteben. Ez dut utzi behar aipatu gabe bertsolariak ere izanak direla, han ziren Uztapide ta Lasarte gure bertsolari famatuak, aizkolarien besta horri beren kantaldiekin ohore egin ziotela.

M. I.





## ARRAIOTZ

### SORTZEARI, ILTZA ZOR...

Badu Euskal-erriak esaera xaar bat: «sortzeari, iltza zor». Adixkideok, orixe bera gertatu zaio JUAN GORTARI ITURRALDE, jaun beneragarriari. Arraiotz'ko «Indakoa» baserri-etxe ederrean, laurgeta amar urtez ilkor ta ustelkor zaigun mundu ontan bizi ondoren, joan zaigu askok ta askok maite genduen adixkide xarra.

¡Gizajo Juan! zenbatak ez ote dute esan. Gizon zinzoa uraxe, benetan. Gizontasun aldetik, gizon. Kristautasun aldetik, kristau. Ta, guratso aldetik, guratso. Amar seme-alaben aita zintzoa. Zazpi semean tartean, euskal-idazle degun Gortari ta Ugarte'tar Yon.

Azaroaren amalaugarrenean, famili eder ori, umezurtz, naigabeturik gelditu da. Aita il zaie. Amar umeen aita! Zenbait larritasun ta naigabe pasabearra izandako aita... Mundu zabalak berekin ditu egun illunak. Ala-ta guztiz ere, beti aurrera egin zuan; biotz aundi ta zabalekoa zan; inorenaganako gorrotorik etzuan ezagutu; iraintzen ziotenari, barkatzen zakiena. Ona zan! Orain, atseden beza. Goian bego.

Amaseigarrenean zebratu ziran mezak ta obiratzea. An ikusi zan ongi aski adixkideak bazituala baztarretan. Eliza, bete zan leporaño. ¡Norbaitek esan zuan Arraiotz-a jun bear zuala, mezetara.

Elizkizun aldetik, ederrenetatik bat zan. Lenago-ere entzun-ta nago: «elizkizun ederrak ikusi nai badituzu, zoaz Arraiotz-a». Erriak, iñun parte artzen badu, ortxen artzen du.

Ogei ta geiago apaiz ta praille,

ikusi genitun elizan, oietatik bos-tek, meza kontzelebratua eman zuten. Itakoaren seme Yon'ek, mezaren irakurgaietan izan zuen artu-eman. Elizaren aldeko eskariotan, ain zuzen, bere aitazanaren alde egin zuan otoi'tz ederrean, negarra ixuri omen zitzaion. ¡Etzan mixterio, alajaña, bere aitarentzat ari zan-ta!

Eta, orrelaxe, otoi'tzean, abesti-etan ta naigabeen parte arturik, «beti-betiko, zoriona illeri eman, otoi, Jauna» abestuaz, lurra eman zitzaion JUAN GORTARI ITURRALDE maiteari. ¡Zorion dezala zeruetan! Gero... elkartuko guralakoan, jagur!

ADIXKIDE BATEK

## URDIAN

### EGUBERRI

Aurtengo Eguberriak kalera begira izan ditugu. Denborak berak, bere hotz eta guzti, hori eskatzen du. Udazken zoragarri baten atzetik, negu sarrera ezin hobea.

24.—Eguberri bezperan, atsaldeko bostetan sekula egin ez duguna, «Olentzero» egin da Urdiainen.

Haur eta gazte, artzai jantzi, baserritar eta poxpolin, kalez kale aterata dira abesti xamur eta bihotzeko poza ereiten.

Dantzariak beste alde. Neska mutil gazteak, euskal dantza giten joan dira txistu soinuakin.

Eta denen buru Jesus Hauraren estalpea gurdi gain batean.

Gero afaria. Gaurko afaria urte guzian berdinek gabekoa dafamilian egitekoa. Ezin hautsia. Beraz, danok etxera afal garaian. Bisiu hegi gorri eta turron gozoak, teiatu beraren azpian bizi direnen bihotz gogoak batu ditzala.

Afal ondoan HERRI MEZA. Zer da hori? Danon arteko eskeintza. Jainkoa ez dabil gure gauzen atzetik. Ez du beharrik. Gu nahi gaitu; gure asmo eta gogo oso.

Gure lan eta dantza, jai eta astegun eskeintzen dizkiogu lurreko frutu eta soinu garbiak eskeintzean.

Gaur Eguberriko mezan txistua izan dugu belarritan eta euskal dantza garbiak gaztetxoan anka puntetan. Herri kantak ahotan, eta Jaunaren hitza ere gaztetxo hoiek berek adierazia.

25.—Eguberri egunean herriko haur eta gazteak beren berendutxo izan dute auzoan.


Ilusioa ez da gauza haunditan bakarrik izaten. Ba dira bihotzak esnatzen dituzten gauza txikiak. Gure gauzak ez dira haundiak izango, bainan beren biziko oroitgarri bat utzi diegu haurtxo hoieri.

Eta hurrekin haundiendako deia. Haur eginek agertu zen Jainkoak ideki ditzala danon begiak, haurtxo hoien egiarekin guk ere Jauna ospatzeko.

Haurrak ez du bide erdirik pozten ba da bihotz bihotzez pozten da. Beste guziak baztarrean uzten ditu.

Gure ez-berdintasun guziak zelaiturik, egin dugu herri'tz guziok pakezko eta maitasunezko Eguberri eder bat.

Se autoriza la copia para la investigación.  
© GOBIERNO DE NAVARRA



## BAZTAN

Urtea igaro da eta bat gehiago gure gain, negua udaberria udara ta udazkena lekuko direla. Eguneroko lana, yostetak, kezkek, aserreak, materialismoa... eta idealismoa zertan dago? Gure eskualdean zer bait egin al da euskal-kulturaren alde? Aztertu dezagun gure barna eta agertu ditzagun baztandarren eginkizunak, euskal-kulturari dagozkionak bakarrik eta ez ordea folklore ta yostetako gauzetaz. Zerbait egiten dela? Bai egia. Eta gehiago egin daitekela? Baita ere. Euskal zaletasuna euskaldun yenearen artean exkaxa balin bada, hori piztuarazten badago lana gure eskualdean.

Aurten hemen egin direnetatik aundienetakoa dudik gabe ikastola izan dugu. Ikastola hau Nafarroako Diputazioko babesean dago eta 3-6 urteko aurrentzat egina dago, berehartara 28 aurtxo joaten direlarik, andereño baztandar bat irakasle dutela. Ikastola honekin arras kontent gaude eta eman dugun urrats horrek aunitz balio du.

—oOo—

«Principe de Viana»k antolatutako aurten ere izan dugu baztandar aurren artean ipui-sariketa berehartan 71 idazle ttipi parte hartu dutelarik. Orain Eguberriaren ere «Caja de Ahorros»ek antolatutako idatz-sariketa hortan 25 ipui agertu dituzte.

—oOo—

Euskal irakurgaiak emeki emeki ari gara edatzen Diputazioko «Principe de Viana» errebista euskal familietan banatuz. Beti ere lenago egundano eskuarazko gauzak irakurri etzitzuztenak orai ari dire eta hori ere bada zerbait.

—oOo—

Aurten bertsolariak eta euskal kantariak ere ari izanak dira. Elizondon Mayatzako ilabetean lau bertsolari aritu ziren: Gorrotxategi, Lasarte, Mattin eta Azpillaga. Gero Santiotan «Ez dok amairu» deitutako euskal kantari paregabeak kantaldi zoragarria egin zautken eta bai Urriko ilabetean Oyartzungo bertze kantari-talde batek ere.

Anizko bestetan ere bertsolariak izan gintuen, Gorrotxategi eta Lazkao-Txiki kobleri famatuak kantaldi ederra egin zautkeia. Sunbillako bestetan ere bertsolariak eta bai antzerkilariak edo teatrolari euskaldunak izan zituzten.

—oOo—

Ez dugu utzi behar aipatu gabe Zubietako bestetan berhartako Herriko txteak antolatutako eskual-besta ederra. Hor aritu ziren, Gorrotxategi, Arotzarena eta Egilegor bertsolariak eta baita ere «Eriak» deitutako euskal kantari taldea. Bertsolarien eta kantarien jardunaldia ederra eta denen gogokoa izandu zen eta beren kantaldietan gai onak eta garbiak erabili zituzten. Besta horeri buruz norbaitek idatzi zuen erranez bertsolariak eta kantariak gordinkerietan eta bortitzkerietan aritu zirela, baina hori ez da egia eta nik erran dezaket, ni han negolaketaz eta kantu ta bertso guziek entzun nituelakotz. Han naiz bertsolariak nola kantariak gai garbiak erabili zituzten, han ez zen erran behar ez diren solasik aipatu. Bertsolariak eta kantariak dira lekuko. Besta hortan «Erketz» dantzari-taldea ere aritu zen euskal-dantza paregabeak erakutsiaz eta denak edo gehienak Nafarroakoak. Besta ederra izandu zen eta yende guzia arras kontent.

—oOo—

Urte zaharra gan da eta orai berriaren artu gara. Zer ekarriko ote dauku urte berri hunket? Guk zer naiko ginuke? Beti ere zoriona eta Bakea gure Euskal-Herriarentzat.

Urte berri berri  
zer dakarrazu berri  
uraren gañan bakia ta osasuna.  
Urtetx Urtetx!

ANZANARRI

## LARRAUN

### LEKUNBERRIKO IKASTOLA

1970-1971 kurso honetarako Lekunberriko herrian «euskal eskola» bat (Ikastola) iriki da, zorionez.

Hango gurasoak, Lekunberriko Erretora jaunarekin bat eginik, eta gure Diputazioaren «Principe de Viana» Elkargokoaren «Euskeraren

Aideko» Saillaren laguntzarekin, beren ametsa eta gogoak egia egin dute, eta beren umiei euskeraz ikasteko toki berezi bat sortu.

Hango Apez jaunak bere etxeko areto bat utzi dio Ikastolari.

Leitzeko alaba den Pakita Agirre da «Andereñoa» (Irakaslea).

Ogei ta bi aur biltzen dira eguneroko euskeraz mintzatzeko, iostatzeko, kantatzeko eta izkribitzeko ikasteko.

Zorionak, lekunberritarrak!!

## SARIKETA

Nafarroako Diputazioko Aurrezki Kutxak edo Caja de Ahorrosek antolatutako, kultura sariketa bat izan dugu Baztanen. Sariketa hau Baztango eskolaketako aurrentzat egina izan da eta berehartan herri gehienetako aurrak sartu dira.

Abenduaren 20'ean «Cine Maitena» deitutako salan ospatu zen Billantziko norgehiagoka eta sarien banaketa, sala bete bete yendez, aurrak beren irakasleekin eta aurren gurasoek ere, denek zaletasun aundia erakusten zutela.

Billantziko Xapelgoan zortzi kantari talde ari izanak dira, hoiaren artean Elizondoko Ikastolako aurrek ere bertzeek bezala bi abesti kantatu zituztela.

Juradoen erabakia hemen:

Lendabizikoak. Iruriteko «San Migel» taldea ... ..	3.000 peza
Bigarrenak. Elizondoko «Concepcionistas» taldea ...	2.000 »
Irugarrenak. Arizkungo eskolako mutikoak ... ..	1.000 »

### Eskuarazko kontuek edo ipuiak

Lenbizikoa. Maria Pilar Gortari. Erratzukoa ... ..	1.000 peza
Bigarrena. Jose Maria Coskarart. Azpilkuetakoa ...	800 »
Irugarrena. Juliana Iriarte. Amayurkoa (Concepcionistas) ... ..	700 »

Besta agitz polita eta arrakasta aundikoa. Datorren urtean ere bertze egiten al dute, aurren artean zaletasuna piztuarazteko sariketa hori bezalakorik eztugu aisa atxemanen.

Zorionak aur saristatuari eta bai bertze gainerakoei eta gure goresmen bizienak Nafarroako Diputazioko Aurrezki Kutxari.

M. IZETA

Azpian dagon kontu honek 1970 urteko Baztango «Idatz-Leiaketa» delakoan lehenbiziko Saria irabazi zuen.

## GAUONAK

Orain dela aunitz urte Erratzuko borda batean bizi zen famili bat. Famili huntan sartzen dire; gurasoak, iru alaba eta amaxi.

Amatxi ez zen mugitzen ahal eta egun guzie yarralki zirrikedun batean egoten zen. Borda hure herritik urrun zen bañan neskatikoak eguneroko yausten ziren eskolara eta aunitz ikasten zuten.

Gau Onak allegatu ziren eta amak afari goxo bat prestatu zuen bildots eta turronaikin. Amatxi pozez bete zen bere ilobek abesten zuten billantziko ederrak aitzean.

Afal ondoan erran zaben:

—Gaten al zate denak guerdiko mezara herriko elizara, ni geldituko naiz su ondoan bakarrik eta etortzen zateleik kontatuko naizue zer erran datzuen apez jaunak Jesus Aurratz.

Otz aundia egiten baizuen, abrigo, guante, eta bufandaz jantzi eta gan ziren elizera. Entzun zuten meza debozio aundiarekin eta ikusi zuten Belengo itxura.

Elizatik ateratu zirelaik galletak erosi zuten amatxiri gateko. Bidean bazoazin iru neskatikoak etxera allegatzeko deseituan amatxiri kontatzeko ikusi zutena. Atetik neskatiko gaztenak oyu egin zuten:

—Amatxi, Amatxi eldu gara!

Sukaldean sartu zirelaik ikusi zuten pena aundiarekin arrosorioak eskuetan ila zagola.

Jesus Aurrak gan zuen zerura eta han ospatu zuen.

Eguberri hoberena.

MARIA PILAR GORTARI  
ERRATZU. 13 urte.

## Batasunari buruz solasak

Beste gaiari lotu aintzin, argi dezadan gauza bat. Hemen ez dezakegu dena aztertutik utz. Zenbait bide, puntu, ideia nagusi aipatzen eta argitzen saiatzen gara. Orain, gaiak azkeneraino eramatea, eta kasu konkretu bakoitzean zer egin behar den jakitea, bestelako lanik dela uste dut. Eta badela, mota horretako lanen egiteko, aldizkari hau baino bide egokiagorik.

Bainan goazen aurrera, eta egun mintzairaren batasunaren egiteko erabiltzen diren zenbait ikus-molde azter ditzagun, pittin bat bedere.

Gramatikak, izkuntza kontuetan zer-ikustekorik haundia du; eta hildo honetan gabiltzalarik, nagusi eta gidarien artetan izkuntzalariek behar dute izan. Horretan nago. Batasunaren egiterakoan —erranik dago— beste batzuen artetan, izkuntzarekiko kezka azaltzen dira, eta hauk, izkuntzalariek dituzte ezagutzen obekienik.

Horretaz landa, so egin behar zaie beste zenbait gauzeri ere bai. Konparazio batera, egungo egunean, euskerak indarririk bizi-korrena Gipuzkoa eta Bizkaian daduka; eta izkuntza bat mintzatzeko (idatzeko, bizitzeko) denez gero, hura kontuan artzeko berri soziolojiko bat da. Berborik osoen eta aberatsena, aldiz, bestaldeko euskalkietan dago. Kasu honetan, nere iduriko, ez genuke aditza —garrantzi haundiko erroa— eskutik halakoikala utzi behar; eta agian gramatika aldetikako aberastasun eta osotasunak sozial alderdiak baino indar haundiago duke.

Bestetan behar bada, aitzitik gerta litake; eta aditzen salbu, gehienetan sozial alderdia beste edozer baino gehiago nagusituko delakoan nago.

(Hauk guztiak, hain zuzen, linguistika aplikatua deituaren gorabehera batzuk besterik ez dira).

Aditza aipatu dugu, eta nere ustez, arazo latz horretan denboraldi batez, bitarteko jokaera bat onar daiteke. Nafar-lapurta, gipuzkoar eta bizkaitar berboen erabiltzea zillagi utziz. (Euskalkiak bizirik daude gero!). Eta egin litakeana da (askok jadanik egiten duguna), zenbait aditz-eren bateratzerat joan.

Adi-bidez: dut/dot/det iru eren artetik bat aukeratzuz; halanola: naiz/naz/niz, nuen/nuan/nun/neban, daiteke/ditake/diteke, eta abar. Horetan, eta beste batzutan naski, ez litzaiguke hainbeste kostatuko gutiz gehienak bat etor-eraztea, eta urrats bat litake. (Erran gabe doa, honek ez duela beste bide bateratu eta sako-nagorik deuseztatzen).

Puntu honetan gaudelarik, derradan zerbait ortografiari buruz.

Nere iritziz, gure egungo problema ez datza ortografia zeharo batu batetan (l, ll, n, ñ, h, eta abar). Mintzaira gero eta batuago izatea, ezinbestezko dugu. Bainan bateratzen doan euskera honen ez dauku, nere iduriko, uniformidade osorik eskatzen; honen beharrez ez gaude eta.

Ohartu behar ginake ez azalari, bainan mamiari; eta azala mamiari zor. Guk egun batasun-funtzionala behar dugu. Mintzaira bat funtsean bateratua, eta euskeraren salbatzeko balioko lukeana. Ez gehiago, ez eta gutiago ere. Zaila bada ere, dudarik gabeko helburua hori da. Eta egiten den guztiak horren arauera izan behar luke.

Aspaldidanik ofizial diren zenbait mintzairek oraindik ere, ortografiarekiko batasun osoa egin gabe baldin badute; badirudi gurean, hil ala biziko atakan, are gutiago behar lukeala izan. Eta ez dut uste ortografiarekiko zenbait berezitasunek, horrenbeste nahasten eta tronpatzen gaituztenik. Bainan, hain dugu arinki jokatzeko, non gure indarrak oro edozein lan-bidetan erretzen baiditugu.

Erderak ameka erreztasun daduzka, eta sinestu ezin diren eztabaida hauetan gaudelarik, garaile —beti bezala— badakigu nor.

Ez gaitezen, beraz, makur gaitzarik gerta ez dakigun, gure kaltetan doan matxinadan tema. Eta problemarik ez dagoen alorrean ez ditzagun, otoi, aserrebideen bihiak erein. Are gutiago, baldin eta horretaz lilluraturik —fanatisgoa eta irresponsabilidadea direla medio— korapilloa ezin atxikiz, itsu-mustuka bagabiltza.

ANKO SENDOA

# EUSKALZAINDIA DALA-TA...

## KALPARREGUI'RI ERANTZUNA

«Principe de Viana» aldizkarian, jaspaldi!, azalduta, nere esanera bateri buruz idatzi dituzun lerroak irakurri ditut, eta gogo onez eta adixkidetasunik aundienarekin, berriala, argitasun labur zontzei emanaz, erantzun nahi ditut.

Erakutsi dezaiegun, bederen, «Principe de Viana» irakurleeri, gurearteko elgarizketa bat, asarre eta burrukarik gabe, gizatuen aundienarekin erabilli litekela. Ortarako gauz bat besterik ez da bear: edukazio on bat.

Onenbestez, guazen arira.

## NERE ASMUA

Lehenik nere asmua azaldu nahi ditut.

Egun batez, «Principe de Viana»n, «AUTOKRITIKA» idazten ari nintzan, au da, euskerak ERRIAREN EZPAÑETAN zeukan egoera negargarria ikusirik, argi eta garbi, ezere korapilorian gabe, egoera ori azaltzeko asmuarekin.

Eta asi nintzan, «autokritika» orrek euskerari, kalte baño mesere geiago egingo zion uste sendo batekin.

Ori zan 1969'ko Otsaillean. Geroztik, artikulu zontzei idatzi ditugu, beti EUSKERA MINTZATUARI buruz, euskerak ERRIAREN EZPAÑETAN daukan egoera negargarriari buruz. Eta nere iritzietan oker nengoanik, oraindik... INORK ez dit probatu.

## ZURE OARRA

Orain zuk diozu: «...Arriturik gelditu zinela, nik garai artan EUSKALZAINDIAREN FRAKASUA aipatu nuelako. Eta nere esana ezetzatzeko, Euskalzaundiak, bai Naparruan eta bai Euskalerrri guzian, batzutan eragozpen aundiekin, egin dituan lanak aipatzen dituzu».

Ori da, nere ustez, zure artikuluen mami-sustraiak.

—oOo—

Bearrezko zait erantzun aurretik, eta gogotik egiten det, oar bat: Nik ez ditut beinere ukatu zuk aipatzen dituzun eta nik ongi ezagutzen dituan Euskalzaundiaren lanak, ez eta ere Euskalzaundiko diran lagunen borondate eta asmo onak. Bego, beraz, ori garbi, ortan.

Bereziki, Naparruako Diputazioak, Principe de Viana'ren bidez egin duan, eta egiten jarraitzen duan lan onuragarria, bein baño geiagotan aipatu eta merezi bezela, an eta emen, goratu degu.

Ori esanik, guk EUSKALZAINDIAREN FRAKASUA aipatu degula ezin ukatu...

Ez bakarrik Euskalzaundiarena, bere aurretik eta geroztik euskerak gordetzeko sortu diran batasun guziena... Euskalzaleen Biltzarrak... Ikas... E.K.A... eta abar.

«Autokritika» zintzo batek eskatzen zuan» frakaso «ori aipatzea eta ere guk euskerarenganako gordetzen degun maitasunak.

Ager ditzagun orain ortarako izan ditugun arrazoiz bereziak.

—oOo—

Euskalzaundia, itzak dio, euskeraren zaindaria da. Berari dagokio, zure artikuluan diotuz bezela, euskera «pizkorta eta zabaltzea». Berari dagokio euskera euskaldunen ezpañetan gorde eta ahal dezakegun bazter guzietara zabaltzea... Ortarako sortua da.

Zer ikusten degu gai oneri buruz Euskalerrrian... Entzun nik baño itzal aundiagoa daukan lekukotasun bat, Miarriz'en orain dela denbora gutxi egin zan VIII Congreso de Estudios Vascos'en lekutasuna:

«...El Congreso de Estudios Vascos al estudiar la situación del euskera, no ha podido por menos de sentirse hondamente impresionado».

Sabíamos que nuestra lengua se hallaba enferma, pero no hasta el punto de encontrarse en la agonía...».

Ara or, Kalparregui jauna, ara or Euskalzaleen Biltzarrak 68 urtetan eta Euskalzaundiak 50 urtetan lan egin ondoren ikusten deguna: ¡Euskera agonian...!!

¡Ez da konsolagarri...!

Eta VIII'garren Congreso de Estudios Vascos'en aitorza orren ondoren, arritzeko alda guk, oraindago euskera gordetzeko sortu diran batasunak FRAKASATU dutela esatea...?

## BUKATZEKO

Guk ez degu nahi zuk diotuz bezela «...izotz berriak inorri bota nai». Ez, izolako moduan ere, ez.

Guk nahi deguna da euskaldun denak atzar eta ernahazi, euskerak galtzeko daukan irrikua begien aintzinean ipiñiaz. Bereziki euskera gordetzeko, «pizkortzeko eta zabaltzeko» erresponsabilidadea daukaten gizonak, ikus eta ikas dezaten ien-bai-ien, oraindago bideak onak eta egokiak agertu ez badira, berriak billatzen saia ditezten.

Ori da guk nai deguna. Eta eskatzen, inorri ez diogu eskatzen guk geok egiten ez deguna, au da, etxian familiarekin... lantokian... adixkideekin... kalia... edozein tokian EUSKERA EZPAÑETAN ERABILI...

Asko eskatzea da...?

Azken itz: euskerak itz goxo-xamur-leunekin baño geiago irabaziko du... gauzak diren bezela argi eta garbi esanaz.

Ez dakit, Kalparregui, ez-ezagun adixkide orrek, nere esanak onartuko dituzun. Ala bearrez, zure menpeko naukazu argitasun geiago nahi izan ezkeror.

Dr. Hernandorena

## Zubietako euskal bestaren egiak

Argitaratzen dugu hemen Elizondotik igorritako karta baten zati bat Zubietako euskal bestari buruz zenbait berri iakingarriak kontatzen dizkiguna. Zubietato besta honi buruz gauzak gehiegi izkribitu dira, eta txarrena dena, izan etzirenak esan, eta ez aipatu izan zirenak. Egia aurretik eta denok pakean.



Irakurri dut «Principe de Viana» eta beti bezala oso ederki dago. «Aritz» sinatzen duenak artikulua bat idatzi du bainan yakin gabe Arretxek arrazoia duen edo ez. Dudik gabe «Aritz» ek etzuen irakurri izanen Zubeldiak Artetxeri erantzun ziona (Zeruko Argia Azaroa 15) eta nik erran dezaket Zubeldiak arrazoin duela; egun hortan ni ere Zubietan negolakit eta nik ere entzun nituelakotz bertsolariak kantatutakoak eta bai «Erlak» taldeak abestutakoak ere. Bertsolariak, Gorrotxategi, Arotzarena eta Egilegor ziren eta han etzuten aipatu deusere abortoen konturik, han beti bezala gai politik erabili ziren eta gai-emaile Zubeldia hernaniarra izandu zen. Kantariak

ere ongi eta etzuten behar ez diren gauzik erran. Hauk Lekua apezaren kanta berri bat kantatu zuten eta seguru aski norbaitei etzizaiola gustatu izango. Gero horrek berak Artetxeri emango zizkion Zubietako berriak, bañan denak gezurrak, eta hara nola nahasten diren gauzak.

Nik ikusi eta entzun nuena erranen dut. Bertsolariak ondo kantatu zuten eta etzuten behar ez diren gauzik aipatu eta kantariak ere bai.



Se autoriza la copia para la investigación.  
© GOBIERNO DE NAVARRA



## Euskal izenak

# 2.-AMAIA

Gaurko euskal izenaren gaita Eguberri txartel maitagarri batek dakarkit. Haur eder baten argazkia, zeharka begira. Begi zabal argien begiratze sorgina! Eta atzean: «Eguberri eta Urteberri on! Amaia. Madrid-tik 22.12.1970». Euskeraz idatzia.

Amaiak zortzi ilabete ditu. Eguberriaren ez zituen beteak. Askoz lehenago, Amaia izena eman aurretik, izan nituen nik bere berriak. Hara zer zion orduan: «Agur lagun zarra! (halaxe). Gaur betetzen dut ilabete bat eta zer istilluak ez ditut sortu! Hartu dut egunorokoaren orria (Diario de Navarra, 23.V-1970), eta oso ona dela esaten du aitak. Hemengo juezak ere ba du, Donostiatic bialdu-ta. Pareta gora igotzeko moduan omen dago, eta zurekin sartu nahian...».

Zer gertatu zen galdetuko duzue, noski. Maiatzaren bian jaio zen Amaia, Madrid-go Chamartin aldean. Juan Jose Ugalde ta Anne Marie Brochon, bere aita-amen izenak. Maiatzeko lili bati dagokion «Amaia» izen polita ezarri nahi zioten, eta juezak ezetz. Astakeritzat jotzen zuen lege gizonak izen hori jende bati ematea (extravagante, irreverente); eta ijito izena zela, gainera. Esatea ere!!! ba da, ez ba da, Arantzazu ezarri zion Amaia'ren ordez... lege gizonak.

Lotsagarri da gure gauzak nola hartzen diren ikustea; eta guretzat mingarri, bigarren mai-

lako herritxoa bezela zapaldu-rik bizitzea. Aita asarre zen eta, gorago jotzea erabaki zuen. Bitartean, egun gutxiaren epea izaten bai da, Tolosako adixkide bati jakinarazi zion. Igan-de atsalde batez agertu ziren nere etxean tolosarrak. Egia esateko, ez nituen ezagutzen; bainan, ongi iduritu zitzaidan euskal izenen auzia Madrid-en sortzea. Orduantxe nuen «Amaia» izeneko lantxoa idatzi eta Iruñeko egunerokora bialdu; horrek ematen zion su juezari.

Aitaren alde erabaki zuten goiko mailan, eta bai Chamartin-goari Amaia izen jatorra zela ta, liburutan sartzeko agindu ere. Bigarren epailearen izena kenduta eman zioten erabakia aitari. Nola nahi dela, izen honekin eragozpenik baltz nubit, ba dakizue legez on-hartua izan dela. Amaia edo Amaya. Bi aldetara berdin da.

Geroztik Amaia txikia zerbait ba zen neretzat. Gurasoak ere alkar ezagutzeko gogoa erakutsia zidaten eta, uda mineko bero haundienekin etorri zitzaizkidan etxera. Hiru ilabeteko haur baketsu ta ezta zen orduan. Eguberriko txartela oso pozgarri izan zait eta Euskalerrri osoari nahi diot adierazi, Madridtik izen euskaldunen auzia aurrera atera duen haurtxoa. Hor duzue orai bere irri gozoa.

Agur Amaia! Berriz Euskalerrrian ikus arte!

SAGI